

FUNTSEZKO ELKARTEAK



Oso garrantzitsua da gure bezeroak identifikatzea, baina horrez gain, gure hornitzaileak eta bazkideak ere oso garrantzitsuak dira gure proiektuak bizia izan dezan eta gure negozio ideia arrakastatsua izateko.

Gauzak horrela, hainbat bazkide eta hornitzaileekin harremanetan egongo gara eta beraiekin etengabeko elkarlanean arituko gara; izan ere, batuz, emaitza hobekia lor ditzakegula uste dugu.

Gure diskoteka, LAHEI, Getxoko kirol portuan kokatuta dago. Hori dela eta, sektore publikoekin aliantzak egitea pentsatu dugu, hau da, Uribe Kosta osatzen dute udaletxeekin aliatuko gara; Plentzia, Getxo, Sopela, Berango, Lemoiz, Urduliz... Uste dugu sektore publikoa osatzen duten **udaletxe** hauek **gure negozio ideiarekin bultzatzaile** eta **laguntzaile** izan behar direla, azken finean, gure diskotekara hurbilduko diren pertsonak herri horietako biztanleak izango baitira.



Honetarako, garagardo elkarte edo enpresa bati erosiko dizkiogu garagardoak eta honetarako beharrezko makinaria. Enpresa hau, Boga <https://boga.eus/es/> izango da. Mungian kokatuta dagoela aprobetxatuz, hurbileko enpresetara joko dugu; bertako proiektuak babestu eta sustatzeko asmoz.



Horretaz gain, enpresa pribatuekin ere bazkide aliantzak egitea espero dugu. Spotify enpresarekin aliatuko gara, musika munduan ospe handia daukalako eta lan egingo dugun DJ-ek Spotify erabiltzen dutelako. Horrez gain, gure diskotekan arituko diren DJ ezberdinek musika ekipamendua ekarriko dute (bozgorailua, DJ mahaia, ...). DJ batzuk, finkoak izango dira (DJ Markelin, DJ Argi...). Erabaki duguna zera da; DJ hauek gure aliatu edota bazkide finkoak izatea, izan ere, gure bezeroek beraien lan egiteko modua gustoko dutelako.

Hala ere, egun zehatz batzuetan, DJ ezberdinak edo "ezagun edota ospetsuak" (internazionalak) ekarriko ditugu, adibidez: Carl Cox, Alex Martini, Fatima Hajji, Saigo etab.

Bestalde, beste enpresa batzuekin ere aliatuko gara, eta gure enpresarentzat beharrezkoak izango diren hornitzaileekin ere harremanak egingo ditugu. Gure diskotekan edari ezberdinak salduko dira. Gauzak horrela, *Euskodis* enpresarekin harremanak izango ditugu, gure hornitzaile garrantzitsua izango da. Ondorioz, aliantza eginez prezio merkeagoak lortzeko aukera izango dugu.

Soinu eta argi teknikariek ere funtzesko papera izango dute. Batzuetan gurekin lan egiten duten DJ horien parte izango dira; baina beste batzuetan, guk hauen zerbitzua alokatu behar izango dugu. Horretarako, [Fonoplay](#) enpresarekin harremanetan jarriko gara, hainbat

produktu ezberdin eta prezio onak dituztelako, haiekin aliatuta prezioak merkeagoak izango direlako; Coca-Colen botilak birziklatu eta haiei berriz emango dizkiegu adibidez. Azkenik, proiektu hau sortzeko bost kide izango gara eta bakoitzak zeregin bat izango du. Bakoitzak bere rola beteko du:



-Jonan: Staff eta diskotekaren kontuak adminiztratuko ditu.



-Lander: Tabernaria izango da.



-Aimar: Diskoteka kontrolatuko du, sartzen eta ateratzen den jendea, segurtasun hobea izateko



-Eneko: Tabernaria izango da



-Irati: Publizitatea eta sarrera salmentak eramango ditu aurrera.

- Kanpoko bi pertsona kontratatuko ditugu: "RRPP" izateko, harreman publikoak izatea sarrerak saltzeko jendeari sare sozialen bidez.

Instituto batzuekin aliatuko gara haien jaialdi bereziak egiteko, adibidez, kurtso amaierako jaialdia egiteko, gure diskoteka alokatu dezakete astean zehar. Ezin izango dute ostiraletan edo larunbatean alokatu, izan ere egun hauetan, diskoteka "publiko" egongo delako. Alokatzekotan, haien nahiak adierazita, gure lokala moldatuko dugu ahal dugun moduan, haiek ahalik eta gehien disfrutatzeko.

Adibidez, Plentziako Uribe Kosta BHI institutoarekin harremanak izango ditugu beraien jaialdiak bertan egiteko; adibidez, graduazioak, 2.batxilergoko eta 4º mailako graduazioak, hain zuzen ere.